



4. DIRU - ITURRIAK

Gure enpresak eskaintzen duena erosotasuna da. Gaur egun, jende askok erosotasunarengatik ordaintzen ditu prezio esanguratsuak, hala nola, Netflix, Amazon Prime... eta horrelako baliabideak. Hala eta guztiz ere, gure enpresa bezeroentzat guztiz **dohainikoa** izango da.

Ordainketa-mota: Gaur egun, biak ordainketa bakarra eta ordainketa errepikaria erabiltzen dira. Orain dela 20 urte ordainketa bakarra zen erabiltzen zen metodo bakarra, baina urteak pasatu ahala, ordainketa errepikariaren metodoa hedatzen joan da. Erosten ari zarenaren prezioa altua bada, jendeak normalean ordainketa errepikaria metodoa erabiliz ordaintzen du. Aldiz, prezioa hain altua ez bada, ordainketa bakarra erabiltzen da, beste metodoa erabiltzen duzunean prezioa pixka bat igotzen baita, eta komisio gehiago ere ordaindu beharko zenuke. Bezeroek gure aplikazioa erabili arren, ersoketak dendei agertueko zaie eta ersoketak online direnez, denden arabera egingo da ordainketa. Nahiz eta gehienetan txartela bidezko ordainketa egiten den, zenbait lekutan errepartidoreari ordaintzeko aukera egon daiteke.

Diru-sarrerak: Aurretik azaldutako guztia bideratzen gaitu guk nola lortuko dugun dirua, gure enpresa mantentzeko eta proiektua hedatzeko. Gure aplikazioaren diru-sarrera iturri nagusia cookie-ak dira, ezbaitegulako bezeroei zuzenean kobratzen. Gainera, enpresa handiei pixka bat kobratuko diegu. Dena den, diru-iturri ez finko bat publizitatea izan ahal da ere; hala nola, aplikazioko lehen planoan agertu nahi duten enpresek plus bat ordaintzen.





	ENPRESA HANDIAK	ENPRESA ERTAINAK	ENPRESA TXIKIAK ETA MIKROENPRESAK
Beharrezko dirua aplikazioan agertzeko	<p>Enpresa handiek hasieratik ordaindu beharko dute 4000 euroko inportea hilabetero aplikazioan agertzeko. Nahiz eta hauen kolaborazioa ezinbestekoa izan, dirua kobratuko zaie aplikazioan agertzeko. Baliteke zenbait enpresekin kolaborazioren bat egin eta haien presentzia aplikazioan dohainik izatea, adostasun batera helduko bagina</p>	<p>Hauek hasieran ez dute ordaindu beharrik, baina 6 hilabete pasatu ahala diru inporte minimo bat ordaindu beharko dute haien enpresa gure aplikazioan agertzen jarraitzeko. Batez ere hasieran ez diegu ordainduko gure aplikazioari onuragarria izango zaie zenbait enpresen kolaborazioa. 6 hilabeteak eta gero, 3000 euroko inportea eskatuko zaie hilabetero aplikazioan agertzeko.</p>	<p>Enpresa txikiei ez diegu dirurik kobratuko, batez ere, gure aplikazioaren helburuetako bat negozio txiki hauek zabaltzea eta hauen desagerpena ekiditea baitwwa.</p>

IRIZPIDEAK TALDEAK EZBERDINTZEKO

ENPRESA MOTA	LANGILE KOPURUA	NEGOZIO BOLUMENA
MIKROENPRESA	10 baino gutxiago	2 milioi baino gutxiago
ENPRESA TXIKIA	50 baino gutxiago	10 milioi baino gutxiago
ENPRESA ERTAINA	250 baino gutxiago	50 milioi baino gutxiago
ENPRESA HANDIA	250 baino gehiago	50 milioi baino gehiago